

Jasokunde abesbatza

Iratxe Uribelarrea zuzentzen duen Mallabiko abesbatza hau, 1993. urtean sortu zen. Duela aste batzuk ETB1eko 'Oh happy day' saioan parte hartu dute.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Jasokunde abesbatza 1993an sortu zen, baina 1997 urtean federatu ginen.

- Zenbat kide zarete?

Guztira 16 pertsona gara taldean, momentu honetan 15 abeslari hiru aho-tsetan banatuta eta Iratxe Uribelarrea zuzendari lanetan.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Musikaz gozatzea, egiten dugunarekin ondo pasatzea eta disfrutatzea dira gure helburuak. Talde txikia garenez, harreman estua dugu gure artean eta honek bere puntu onak ditu. Guztion artean helburu hauek lortzen saiatzen gara.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Astean birritan biltzen gara entseatzeko, asteazkenetan 17:00etatik 18:30era eta ostiraletan 19:00etatik 20:30ak arte, Mallabiko eskolako aretoan.



- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Urtean ekitaldi ugari egiten ditugu, besteak beste, Santa Zezilia, Gabonak, Udaberriko kontzertuak, Santa Ageda, elkartrukeren bat... denetarik. Orain ETB1eko 'Oh happy day' saioan ere bagabiltza eta oso pozik, esperientzia berria da guretzako eta gauza berriak ikasteko baliogarria iruditzen zaigu.

- Txangoak ere egiten dituzue?

Urtero asteburu pasa bat egiten dugu, urte bakoitzean leku ezberdin bat

ezagutzera joaten gara. Positiboa izaten da, taldeko harremanak sendotzeko.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Iratxe Uribelarreaki deituta 680706216 telefonora edo entseguetara agertuta. Esatekoa da baita ere, Jasokunde abesbatzak baduela web orria: www.jasokundeabesbatza.com. Bertan abesbatzaren berriei gain, argazkiak eta bideoak ikusteko aukera izango duzue.

Olatz Gil

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

San Antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

drogetenitturri

**Euskal
Birusa
Elkartea**

943 17 93 50
Elexoste